


naiz: Eguneratua: 11.14 (CEST) 14° Iruñea

OHAR-TAULA | Aste Santua 2014

# Sagardoetxean, oporretan

2014/04/17 - 2014/04/20
11:30, 12:30 ETA 13:30.

ASTIGARRAGA
GIPUZKOA



AIPAMENAK

Ohiko bisita gidatua eta sagardo, muztio eta likore dastaketaz gain, Euskal Herriko gazta ezberdinen dastaketa eskaniko da Aste Santuan Astigarragako Sagardoetxean. Dastaketen aurkezpena apirilaren 17an izango da. Eta ondorengo egunetan: Idiazabal gaztaren eguna, apirilaren 18an; Iraty gaztaren eguna, apirilaren 19an; eta Roncal gaztaren eguna, apirilaren 20an. Hiru egunetan dastaketak 11:30, 12:30 eta 13:30ean izango dira.

Bestetik, sagardoa eta gaztaren pasaporte gastronomikoaren ildotik, 'Sagastiak loretan eta ardiak larretan' argazki lehiaketa martxan jarri du Sagardoetxeak, Igartubeiti, Gaztaren Interpretazio Zentroa eta D'Elikatuz museoetako Facebook orrietan.

Lehiaketan parte-hartzeko, argazkia Sagardoetxea, Igartubeiti, Gaztaren Interpretazio Zentroa edo D'Elikatuz museoetako Facebook orrietara bidali behar da 'Sagastiak loretan eta ardiak larrean' lehiaketarako dela adieraziz.

Facebook-eko orrialde bakoitzera bidaltzen diren argazkiak 'Sagastiak loretan eta ardiak larretan' izeneko argazki bilduman argitaratuko dira egilearen izena eta datarekin. Argazkiak bidaltzeko epea maiatzaren 1ean amaituko da.

ORDUA

11:30, 12:30 eta 13:30.

KOKAPENA

Kale Nagusia, 48
Sagardoetxea
Astigarraga




Mapako datuak: ©2014 Ayuntamiento de San Sebastian, Google, basado en BCN IGN España
Eman mapako errore baten berri

© GARAINFO - Portuetxe 23 2.a 20018 Donostia, GIPUZKOA - Tel. 943 316999